

Sagardoaren etorkizuna aztergai Donostian

Gaur bukatzen dira Diputazioak antolaturiko ihardunaldiak

Sagardogintzaren inguruan dauden zenbait oinarriko puntuan izan dira aztergai atzo hasi eta gremio honi zuzendurik Gipuzkoako Diputazioko Nekazaritza arloak antolatu dituen ihardunaldietan. Hernanin kokatuta dagoen Zabalegi eskolan burutu dira, eta gaur Baskongadetan erabiltzen arauegia aztertu ondoren, bukatutzat emango dira. Halere, ihardunaldien amaiera jai giroan biziko da, bihar Donostiako Konstituzio enparantzan Sagardoaren eguna ospatuko baita.

Iñaki Larrañagak, Diputazioko Nekazaritzaren Zuzperketarako eraturik dagoen sailako teknikoa, adierazten zigun legez ihardunaldi hauekin Euskal Herriko sagardoaren kalitatea hobetu dadin lortu nahi dute. "Gure helburua zera litzateke —zioen—, sagardogileek informazioa izan dezatela".

Ihardunaldien deia zabala izan da, baina, halere, sagardoaren munduko jendearentzat zuen interes haundiena. Atzokoan perito kimiko batek sagardoaren prozedura aztertu egin zuen, batez ere alderdi kimikoetako eragina eta egitura landu zuelarik. Gaur, ordea, Iñaki Larrañaga bera arauegiat mintzatuko da. Etiketak, mugak, salmentak, etabar luze bati buruzko informazioa luzatu zien sagardogilei.

Sagardoa, ia Gipuzkoan bakarrik

Gaur egun sagardogintzak ez dago batere hedaturik Euskal Herrian. Iñaki Larrañagak adierazten zuen arabera gehienak Gipuzkoan mantentzen dira, Bizkaian gutxi gelditzen direlarik, eta beste herrialdeetan, ostera, ez da mantentzen.

"Desberdintasun ugari daude sagardogileen artean. Alde batetik, negozio bat bezala landu egiten dutenak daude; bestalde —gehienak dira—, produkzio murriztuago dute, gutxigorabehera urtean haien produkzioa 100.000 litro sagardoarena delarik; eta, azkenik, hostelerian sartutak daudenak, hau da sagardote-

giak. Bakoitzak, planteamendu berekoiak ditu", azpimaratzen digu Iñaki Larrañagak. Diputazioa eta sagardogileen elkarrearen lana, bada, guzti hauen lana bateratzea litzateke. "Diputazioak ezin du honen kontrolik eraman, Gasteizko Gobernuaren bete-beharra baita. Ezin dugu bapatean araudio osoa sartu —jarraitzen du Iñakik—, baina bai informazioa eman eta erreglamentazioa ahal den neurrian bete dadin espero".

Buruhauste guzti hauen ondoren sagardogileak ondo pasatzeko aukera izango dute, bihar III Sagardo eguna ospatzen baita Gipuzkoan. Goizean edari goxo hori dastatzeko stand batzu jarriko dituzte, eta gainontzeko orduak omenaldi eta bazkari baten bitartez bete ditzuzte.



Sagardogintzaren egoerak aldaketa batzuk behar omen ditu.